# ZAIN DITZAGUN ENARA ETA SORBELTZAK






## EZAUGARRI OROKORRAK :

- OSO MESEDEGARRIAK DIRA AIDEAN HARRAPATZEN DITUZTEN ELTXO, EULI ETA XOMORRO UGARI JATEN DITUZTELAKO. BABESTUAK DIREN HEGAZTIAK DIRA.
- MIGRATZAILEAK DIRA. UDA ALDEA GURE ARTEAN EGITEN DUTE ETA NEGUA BERRIZ AFRIKAN.
- BERE SORLEKUA MENDIETAKO HAITZ ETA ITSAZ MALDAK DIRA. GIZA ERAIKUNTZEK LEKU BERRIAK ESKEITZEN DIZKIE ETA BATZUK HIRI ETA HERRIETARA ADAPTATU DIRA.

- SORBELTZ ARRUNTA : 16'5 zm. BELTZA DA. MAIATZAREN HASIERAN IRISTEN DIRA ETA ABUZTUAREN BUKAERAN AFRIKARA JOATEN DIRA NEGUA PASATZERA. KABIAK ETXE EDO ELIZETAKO HORMETAKO TARTEETAN EGITEN DITUZTE.
- ENARA AZPIZURIA : 13 zm. AZPIA ZURIA ETA GAINA BELTZA. UDABERRI HASIERAN ETORRI ETA UDAZKENEAN JOATEN DA AFRIKARA. KABIAK ETXEETAKO TEILATUAZPI ETA PARETEN ANGULOETAN EGITEN DITUZTE BUZTINEZ.
- ENARA ARRUNTA : KOLORE BIZIAGOAK DITU, URDIN TANKERA HARTUZ.
- HAITZ ENARA : KOLORE ILUNEKOA, BUZTANA KARRATUA ETA MANTXA ZURI BATZUKIN.

*Lehenengo biak Lezoko hiribarruan umatzen dute. Beste biak berriz eskasak dira, ez dute gure artean umatzen eta pase garaian ikus daiteke udaberri edo udazkenean.*




**lezoko ekoloji taldea**